Ebazpena, Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketako zuzendariarena, 2024/2025 ikasturterako partzialki ordaindutako baimenaren (urte sabatikoa) deialdia ebazten duena.

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 7ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen 185/2010 Dekretuaren 60. artikuluan aurreikusitako partzialki ordaindutako baimena baliatzeko baldintzak ezartzen dira.

Agindu horren 5. artikuluaren arabera, honako hauek dira urte sabatikoa emateko baldintzak:

- *Karrerako funtzionarioa izatea.*
- *Zerbitzu aktiboan egotea.*
- *Falta astunagatik edo oso astunagatik diziplina-espediente baten izapideetan sartuta ez egotea, edo hori dela-eta zehapena betetzen ari izatea.*
- *Ezintasun-espediente baten izapideetan sartuta ez egotea.*
- *Gutxienez 5 urtera egotea nahitaezko erretiroa hartzeko.*

Agindu horren seigarren artikuluan honako hau xedatzen da: “egindako eskaera ikusita, eta 5. artikuluan ezarritako baldintzak betetzea eragozten duen inolako gorabeherarik ez dagoela egiaztatu ondoren, Langileriaren Kudeaketako zuzendariak, 5 hilabeteko epean, eskatutako baimena emateko edo ukatzeko ebazpena eman eta jakinaraziko du.”

Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, honako hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Ebazpen honen I. eranskinean agertzen diren pertsonei partzialki ordaindutako baimena ematea. Baimen hori 2024/2025 ikasturtean hasiko da.

Resolución de la Directora de Gestión de Personal del Departamento de Educación por la que se resuelve la convocatoria de permiso parcialmente retribuido (año sabático) para el curso 2024/2025.

Por Orden de 7 de diciembre de 2022, del Consejero de Educación, se establecen las condiciones de disfrute del permiso parcialmente retribuido previsto en el artículo 60 del Decreto 185/2010, por el que se aprueba el Acuerdo Regulador de las condiciones laborales del personal funcionario docente no universitario de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Conforme al artículo 5 de la citada orden, los requisitos para la concesión del año sabático son:

- *Ser funcionario/a de carrera.*
- *Encontrarse en situación de servicio activo.*
- *No estar incurso/a en la tramitación de un expediente disciplinario por falta grave o muy grave, o cumpliendo sanción por motivo del mismo.*
- *No estar incurso/a en la tramitación de un expediente de incapacidad.*
- *Estar al menos a 5 años para acogerse a la jubilación forzosa.*

En el artículo seis de esa orden se determina que: *“A la vista de la solicitud formulada, y una vez comprobado que no concurre ninguna circunstancia que impida el cumplimiento de los requisitos fijados en el artículo 5, en el plazo de 3 meses el Director/a de Gestión de Personal dictará y notificará la resolución por la que se conceda o deniegue el permiso solicitado.”*

Considerando lo dispuesto en el artículo 10 del Decreto 71/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Educación;

RESUELVO

Primero. - Conceder a las personas que figuran en el anexo I de la presente resolución, un permiso parcialmente retribuido cuyo comienzo es en el curso 2024/2025.

Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikoaren** bidez eskuragarri dagoena.

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ - E-mail: huisgesp@euskadi.eus

**LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR:** J0D0Z-T5Q46-B9C3
**EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA:** https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
**SINATZAILE / FIRMANTE:** BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO | 2024/05/10 12:33:07

Bigarrena. – Partzialki ordaindutako baimenak ondoz ondoko 5 urteko aldia hartzen du; beraz, denbora-luzapena 2024ko irailaren 1etik 2029ko abuztuaren 31ra artekoa izango da.

Inola ere ezin izango da 5 urteko denbora-tarte hori gainditu. Salbuespen gisa, interesdunaren gaixotasun larriaren kasuan, baimena baliatzen den bosgarren urtean zehar 2 hilabetez jarraian gertatzen bada, bosgarren urtea luzatu ahal izango da, etenik gabe bajan egon den denbora tarte berdinerako.

Hirugarrena. – Baimena baliatzeko lehenengo lau ikasturteetan, lanaldi osoagatik legozkiokeen ordainsarien ehuneko laurogeita lau jasoko du interesdunak. Horrek ez du esan nahi baimen hori beste baimen, lizentzia eta beste administrazio-egoera batzuekin bateragarria ez denik. Egoera horiek kasu bakoitzean dagozkion ordainsariak zehaztuko dituzte.

Bosgarren ikasturteko ordainsariak administrazio-egoeraren eta/edo aurreko lau ikasturteetan sortutako ordainsarien arabera zehaztuko dira.

Laugarrena. – Baimena baliatzen den bitartean, interesduna zerbitzu aktiboan egongo da, eta lanpostua eta behin betiko destinoa gordetzeko eskubidea izango du. Eszedentzian emandako denbora antzinatasunari eta eskubide pasiboei dagokienez zenbatuko da.

Hala ere, zuzendaritza-kargu bat betetzen ari denean, baimen hori baliatzeak berekin ekarriko du kargu hori uztea urte sabatiko izenekoan.

Gauza bera gertatuko da ordainsari-osagarri bat dakarten lanpostu edo karguekin, baldin eta osagarri hori jasotzea dagokion lanpostua edo eginkizunak benetan betetzearekin lotuta badago.

Bestalde, bosgarren ikasturte horretan zerbitzu aktiboan egoteagatik, gaixotasunagatiko edo istripuagatiko bajan egonez gero, eta egoera hori

Segundo. – El permiso parcialmente retribuido abarca un período de 5 años consecutivos por lo que la extensión temporal será desde el 1 de septiembre de 2024 al 31 de agosto de 2029.

En ningún caso podrá excederse ese ámbito temporal de 5 años. Excepcionalmente, en el caso de enfermedad grave de la persona interesada por un período ininterrumpido de 2 meses producido a lo largo a lo largo del quinto año de disfrute del permiso, se podrá previa solicitud, alargar el quinto año por un período igual al tiempo que se haya permanecido en situación de baja ininterrumpidamente.

Tercero. - Durante los primeros cuatro cursos de disfrute del permiso, el/la interesado/a percibirá el ochenta y cuatro por ciento de las retribuciones que le corresponderían por la jornada completa, y ello sin perjuicio de las situaciones que pudieran darse por la compatibilidad de este permiso con otros permisos, licencias y otras situaciones administrativas, que determinarán las retribuciones que en cada caso correspondan.

Las retribuciones del quinto curso se determinarán en función de la situación administrativa y/o las retribuciones devengadas en los cuatro cursos anteriores.

Cuarto. - Durante el disfrute del permiso el/la interesado/a permanecerá en situación de servicio activo, teniendo derecho a la reserva de plaza y destino definitivo, y computándose el tiempo de permanencia en el mismo a efectos de antigüedad y derechos pasivos.

Ello, no obstante, cuando estuviera desempeñando un cargo directivo, el disfrute de este permiso conllevará el cese en dicho cargo durante el denominado *año sabático*.

Lo mismo ocurrirá con aquellos puestos o cargos que lleven aparejado un complemento retributivo cuya percepción esté vinculada al efectivo desempeño del correspondiente puesto o funciones.

Por otro lado, precisamente por permanecer ese quinto curso en situación de servicio activo, en caso de incurrir en una situación de baja por enfermedad o accidente, y en tanto dicha situación se mantenga,

mantentzen den bitartean, baja-agiriak aurkeztu beharko dituzu zure lantokian.

Bosgarrena. – Ebazpen honen II. eranskinean agertzen diren pertsonen urte sabatikoko eskabideak ezestea, bertan adierazitako arrazoiengatik.

Errekurtsoa

Ebazpen honen kontra, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/ web orrian argitu eta hurrengo egunetik aurrera, betiere Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legearen 112.1 artikuluari dagokionez, 121. artikuluan eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.

deberá presentar en su Centro de trabajo los correspondientes partes de baja.

Quinto. - Desestimar las solicitudes de año sabático de las personas que figuran en el anexo II de la presente resolución, por el motivo indicado en el mismo.

Recurso

Con arreglo a lo dispuesto en los artículos 121 y siguientes, en relación con el 112.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, contra la presente resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Viceconsejero de Administración y Servicios en el plazo de un mes, a partir del día siguiente al de su publicación en la web http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren data-orduan
Vitoria-Gasteiz, a fecha de firma

BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE GESTIÓN DE PERSONAL